

2. gehigarria Anejo 2

Laburpen eta memoriaren eredua Modelo de resumen y memoria

“2020/2021 IKASTURTEAN EKONOMIA ETA FISKALITATEARI BURUZKO UNITATE
DIDAKTIKOAN PARTE HARTZEN DUTEN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE GIPUZKOARREK
FISKALITATEA BERRITZEKO PROPOSATUTAKO IDEIAK” SARIA

PREMIO “IDEAS INNOVADORAS EN FISCALIDAD DE LOS CENTROS EDUCATIVOS GUIPUZCOANOS
DE ENSEÑANZA NO UNIVERSITARIA, QUE PARTICIPAN EN LA UNIDAD DIDÁCTICA SOBRE
ECONOMÍA Y FISCALIDAD DURANTE EL CURSO ESCOLAR 2020/2021”

Ideiaren izenburua Título de la idea
“Munduaren bi errealitateak”
A. Ideiaren LABURPENA (funtsezko ezaugarriak eta baloreak) RESUMEN de la idea (que resalte sus aspectos y valores fundamentales)
Gure proiektua “Munduaren bi errealitateak” deitzen da eta munduan zehar iruzur fiskalaren ondorioz suertzatzen diren egoera eta ondorioetan oinarrituta dago. Zer egingo dugu? Erakusketa bat egitea da gure asmoa. Honek formatu askoz ikusgarri eta erakargarriagoa du eta, ondorioz, erakusketaren mezua pertsona gehiagori iritsiko zaiela deritzogu. Erakusketa hau mundu guztiarentzat da, baino batez ere umeei ikustea nahi dugu. Umeentzat egokituta egongo da eta gida bat edukiko dute (poliziaz jantzita) erakusketako kontzeptuak modu simplean azaltzen. Nola? Zer Beharko dugu? Ezeri ekin baino lehen, funtsezkoa da erakusketaren antolaketa jakitea izenburua ulertzeko. Hasteko, bi sarrera beharko ditugu. Gure erakusketa bi zatitan dago banatua, adibidez, gela bat baldin badugu, erdia iruzur fiskalerako eta erdia iruzur fiskalik gabeko mundu baterako izango da. Hau da, alde batean, paraisu fiskalek eta iruzur fiskalak sortzen dituzten arazoak eta hauen ondorioz gertatzen ari denari buruzko argazkiak eta informazioa egongo da, argazkien azpian. Beste aldean aldiz, iruzur hauek gabe egin ahalko litzatekeen proiektuak etab. agertuko dira. Bukaeran, informazio horri bat emango zaie ikusleei, iruzurra nola sahiesten ikasteko. Gure Helburua:

Txikitatik erakustea umeei zer ondorio dituen iruzur fiskalak eta zer egin ahal izango zen hau gabe. Bidebadar, erakusketa ikusi ondoren, gurasoei aipatzea eta haiei ere konzientzatzea.

Ondorioak:

Estatuak diru gutxiago du bizi-kalitatea hobetuko duten obra, programa eta ekintzetan inbertitzeko, eta herrialdearen garapen ekonomikoa bultzatzen duena. Diru-kutxa publikoetan dirurik ez izateak funtsezko sektoreen finantzaketari eragiten dio, hala nola hezkuntzari eta osasunari. Edo gizartearen hobekuntzarentzako programeri; gorrotoaren aurkako programak, familia barruko indarkeriaren aurkakoak, drogen aurkakoak, enpresa eta familientzako laguntza publikoak, jantoki publikoak, etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko programak, etab. Beti ez baldin bada ere, iruzur fiskalagatik galtzen den diru guztiak, adierazitako arazoak eta beste batzuk gehiago, adibidez enpresen dirulaguntzak ematea enpresei Koronabirusean, konponduko lituzke, edo gutxienez hobetu.

Honez gain...

Erakargarrigoa izateko, erakusketa bukaeran eransgailu batzuk emango dizkiegu eta piruleta bat, haren tiketarekin (TiketBai).

B. MEMORIA, gutxienez jarraian aipatzen diren apartatuak jaso behar dituen
MEMORIA, que recoja, como mínimo, los apartados descritos a continuación

(Gehienez 3.000 hitz edo 5 orri)
(Extensión máxima 3.000 palabras o 5 páginas)

B.1. EREMUA: ideiaren helburua, oinarrietan jasotakoak kontuan hartuta
AMBITO: encaje de la idea en los objetivos señalados en las bases

Markatu X batekin dagokiona:

- a) **Ikusarazi eta sentsibilizatzea zerbitzu publikoak eta ongizatearen estatua erantzukizunez mantentzen laguntzeak garrantzi handikoa dela.**

Marcar con una X lo que proceda:

- a) Difundir y sensibilizar sobre la importancia de contribuir con responsabilidad al mantenimiento de los servicios públicos y al estado del bienestar

- b) Ogasunaren webgunean informazio gehiago edo hobe eskaintzea, eta herritarrei beren zerga obligazioak betetzen laguntzeko zerbitzuak sortu, zabaldu edo hobetzea.
- c) Iruzurraren aurkako borrokarekin lotuta dauden edo lan hori errazten duten ideia edo tresna berriak proposatzea.

- b) Ampliar o mejorar la información disponible en la web de Hacienda y crear, ampliar o mejorar los servicios de apoyo a la ciudadanía en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales.
- c) Proponer nuevas ideas y/o herramientas relacionadas o que faciliten la lucha contra el fraude.

B.2. Ideiaren helburuak eta xedea, eta kolektibo hartzailea
Objetivos, finalidad de la idea y colectivo destinatario

Gure helburua, lehenago esan bezala, Ikusarazi eta sentsibilizatzea zerbitzu publikoak eta ongizatearen estatua erantzukizunez mantentzen laguntzeak garrantzi handikoa dela, da. Umeentzat pentsatua den arren, edozeinek du etorteko aukera. Gure asmoa eskolak erakusketara etorri, eta umeek bere gurasoei iruzur fiskala ez egitekoa da.	
B.3. Ideiaren motibazioa, premia eta egokitasuna Motivación, necesidad y oportunidad de la idea	
Gaur egun, gazteok ez ditugu gure iritzia luzatzeko aukera ugari. Horregatik, gure irudimen eta iritziekin aldaketa bat egiteko aukera ematean, berehala hartu genuen. Hasieran ideia ugari eduki genituen, posterrak, iragarki bat etab. baina, konturatu ginen, orokorrean jada jende gutxi egiten diela jaramonik honelako formatuei. Horregatik, erakusketa batean pentsatu genuen. Gainera, errazago iruditzen zaigu umeentzat egitea, hauek arretaz entzun eta gurasoei esango baitiete eta gurasoek beraien umei entzutean iruzur fiskalari buruz ikasiko dute.	
B.4. Ideiaren berrikuntza maila Grado de innovación de la idea	
Gehitu ditugun elementu berritzaileak, nagusiki, ahalik eta pertsona gehienei atentzioa emango dieten faktoreak dira, iruzur fiskalaren ondorioez jabetu daitezen, askok saihestea erabakitzen duten gaia. Era berean, egingo dugun formatutik abiatuta (erakusketa baten bidez), jendea informatu ahal izatea bilatzen da, edozein adinetako edozein pertsonarentzat ulergarria izan dadin; hori lortuko dugu, informazio gutxi gehituz baina ondo landuta, erakusketaren atal guztiak azalduko dituen gida bat kontratatuz eta haurrentzat deigarriak diren ikusizko elementuak erabiliz. Inplementatzea erabaki dugun beste elementu bat erakusketa batez ere hurrei zuzentzea da, gurasoak erakusketa ikustera bultza ditzaten. Nahi dugun bezalakoa izan dadin, erakusketaren ondoren haur bakoitzari pegatina bat eta piruleta bat emango dizkiogu, euren senide eta lagunei kontatzera animatuagoak egon daitezen.	Resaltar los aspectos innovadores que ofrece la idea propuesta.
B.5. Gizartearenganako inpaktua Impacto en la sociedad	
Gizartearenganako inpaktua eukitzea nahi dugu, jendea konturatzea iruzur fiskalak daukaten ondorioak, iruzur fiskalarik gabe zer egin ahal da eta jendearen ongizatea iruzur fiskal gabe haunditzea. Hau da gure helburua da jendea ulertzea eta konturatzea zer dira iruzur fiskalak. Gainera, lehen esan dudana bezala erakusketa oso bisuala da, adin guztietako gizon eta emakumeak uler dezaketela. Bestalde, gurasoen atentzio ez badu deitzen, haurrarentzako erakusketa oso ulergarria da; orduan gurasoei aipatzea eta haiei ere konzientzatzia.	Propuesta de valor ofrecida a la sociedad guipuzcoana, potencial de transformación social

B.6. Zure iritziz, zein da argudio nagusia Gipuzkoako Foru Ogasunak zure ideian konfiantza izan eta abian jarri dezan?

¿Cuál es, a su juicio, el principal argumento para que la Hacienda Foral de Gipuzkoa confíe y ponga en marcha su idea?

Gipuzkoako gizartea ahalik eta modu eraginkorrenean kontzientziaztea lortu nahi dugu, eta espero dugu erakusketa-formatuak izango duela eraginik handiena. Pantaila batean informazioa ikustea edo irakurtzea ez bezala, datuetara zu zeu hurbiltzeko gai izatea eta dekorazio argigarrian murgildua izatea bisitarien arretari eustea bermatzen duen esperientzia da. Batez ere gure ikuslego hautatuari dagokionez, haurrak, erraz distraitzen baitira eserita eta aspertuta egon behar badute, beren arreta erakartzen ez duen gai bat irakurtzen edo ikusten. Baina ikasten ari diren bitartean entretenitzeko bereziki pentsatutako leku berri bat bisitatu ahal izatea, gurasoekin edo gainerako eskola-klasearekin batera, askoz ere zailagoa da distraitzea, dinamikoki mugituko bailirateke eta gure proiektuaren zati interesgarrienekin elkarreraginean arituko bailirateke.



Iruzur Fiskala

Iruzur fiskala edo zerga-iruzurra zergen ordainketa saihesteko legez kanpoko ekintzak edo egingabekoak dira eta gehienetan dokumentuak faltsutuz edo dokumentu horiek ez aurkezteagatik egiten direnak.

Zer egin

Gure agerpenera etortzen bazarete, ikusiko duzue zergatik den hain garrantzitsua iruzurra sahiestea. Iruzurragatik, urtean diru hau galtzen da:

Espainian

Iruzurra:

1. Urtean 91.600 milioi euro galtzen dira iruzur fiskalaren ondorioz
2. Ogasuneko teknikarien arabera, zergetan 60.600 milioi euro ez dira sartzen.
3. Gizarte Segurantzako kuotetan 31.000 milioi euro ez dira sartzen.

Esposizioa

ZERTAN DATZA?

Gure erakusketarekin, jendeari iruzur fiskalaren ondorioak adierazi nahi dizkiogu. Honetarako, argazki ugari osaturik dago, modu bisual batean ikusteko zer egin zitekeen iruzurrik gabe eta zer gertatzen ari den iruzurrarekin.



[Iruzur Fiskala aurkezpenaren esteka](#)

